

Izar bat zara!

Eraman hitz bakoitza bere lekura



Neguan egunak oso laburrak dira, eta eguzki izpiak zeharka iristen dira.
Hotz handia egiten du.

Udazkenean egunak laburtu egiten dira. Eguzki izpiak ez dira hain zuzen
iristen eta hozten hasten du

Udan eguzki izpiak zuzen zuzen iristen dira. Bero handia egiten du eta
egunak oso luzeak dira.

Udaberrian berotzen hasten da eta egunak luzatu egiten dira.

Lotu Ilargiaren faseak



Ilberria

Ilbehera

Ilgora

Ilbetea

Klikatu ondo dagoen esaldia

a. Zer da errotazioa?

Lurra bere baitan biratzen da eta higidura horri errotazioa esaten zaio.

Lurra eguzkiaren inguruan biratzen da eta higidura horri errotazioa esaten zaio.

b. Aukeratu ondo dagoen esaldia.

Eguzkia izar bat da, gure galaxian dago baina ez du berezko argirik

Eguzkia izar txikia da eta argia eta beroa ematen dizkigu.

c. Nola biratzen da Ilargia eta zenbat irauten du?

Bere baitan eta Lurraren inguruan, urte bat behar du bira bat emateko.

Bere baitan eta Lurraren inguruan, 28 egun behar ditu bira bat emateko.

d. Aukeratu ondo dagoen esaldia.

Eguzkia Planeten inguruan biratzen da eta ibilbideari orbita esaten zaio.

Planetak Eguzkiaren inguruan biratzen dira eta haren ibilbideari orbita esaten zaio.